

Europar Batasunak finantzaturako NextGenerationEU – Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan, Euskadin hondakinen araudia ezartzen eta ekonomia zirkularra sustatzen laguntzeko proiektuak betetzeko eta horien azken justifikazioa egiteko oinarrizko gida (2021eko urriaren 13ko Agindua eta 2022ko irailaren 21ekoa)

Gida honen helburua da Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzak Euskal Autonomia Erkidegoan hondakinen araudia ezartzeko eta ekonomia zirkularra sustatzeko diruz lagundutako proiektuak gauzatu eta justifikatzeko gai nagusiak laburtzea. Asmoa da lege-testuen interpretazioa erraztea, eta bestelako lege-testu osagarriak aipatzen direnean informazioa zabaldu eta zehaztea.

Betebehar zehatzak honako hauetan jasota daude:

- *AGINDUA, 2021eko urriaren 13koa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuarena, zeinaren bitartez ezartzen baitira EAEn hondakinen araudia ezartzeko eta ekonomia zirkularra sustatzeko dirulaguntzen oinarri arautzaileak eta horretarako deialdia egiten baita.*
- *AGINDUA, 2022ko irailaren 21ekoa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuarena, zeinaren bitartez aldatzen baita 2021eko urriaren 13ko Agindua, EAEn hondakinen araudia ezartzeko eta ekonomia zirkularra sustatzeko dirulaguntzen oinarri arautzaileak ezartzen dituen eta horretarako deialdia egiten duena.*

EDUKIEN AURKIBIDEA

ERREFERENTZIAKO ARAUDIA	4
PROIEKTUA BETETZEAN KONTUAN HARTU BEHARREKO ALDERDIAK	6
LEHENA.- XEDEA	6
BIGARRENA.- EMANDAKO ZENBATEKOA	7
HIRUGARRENA.- EPEAK	9
LAUGARRENA.- SEEP-ETIK ERATORRITAKO BETEBEHARRAK	10
BOSGARRENA.- PUBLIZITATEA	12
FINANTZA DAITEZKEEN GASTUAK, EZIN FINANTZA DAITEZKEEN GASTUAK ETA JUSTIFIKAZIO-AGIRIAK	14
FINANTZA DAITEZKEEN GASTUAK	14
FINANTZA EZIN DAITEZKEEN GASTUAK	15
NOLA JUSTIFIKATZEN DIRA ORDAINKETAK?	16.
LAGUNTZA GUTXITZEKO IRIZPIDE OROKORRAK	17
ZEIN AGIRI AURKEZTU BEHAR DIRA JUSTIFIKATZEKO?	18
JUSTIFIKAZIO TEKNIKOA	19
JUSTIFIKAZIO EKONOMIKOA	20
PROIEKTUAREN HEDAPENAREN JUSTIFIKAZIOA	21
HAUTAGARRITASUNA EGIAZTATZEKO JUSTIFIKAZIOA	22
ERANSKINAK	
DIRU-SARREREN ETA GASTUEN ZERRENDAREN EREDUA	I. ERANSKINA
BESTELAKO LAGUNTZEN DEKLARAZIOA	II. ERANSKINA
KARTELAREN EREDUA	III. ERANSKINA
AZKEN JUSTIFIKAZIOAREN MEMORIA TEKNIKOAREN EREDUA	IV. ERANSKINA
AZKEN JUSTIFIKAZIOA EGITEKO ADIERAZLEEN EREDUA	V. ERANSKINA
ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENEN EREDUA	VI. ERANSKINA



Euskal Autonomia Erkidegoan hondakinen araudia ezartzeko eta ekonomia zirkularra sustatzeko dirulaguntzen erakunde onuradunen betebeharrak bi agindutan daude jasota; hauek dira:

- *Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren 2021eko urriaren 13koa Aginduan, zeinaren bitartez ezartzen baitira Euskal Autonomia Erkidegoan hondakinen araudia ezartzeko eta ekonomia zirkularra sustatzeko dirulaguntzen oinarri arautzaileak eta horretarako deialdia egiten baita.*
- *Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren 2022ko irailaren 21eko Aginduan, zeinaren bitartez aldatzen baita 2021eko urriaren 13ko Agindua, Euskal Autonomia Erkidegoan hondakinen araudia ezartzeko eta ekonomia zirkularra sustatzeko dirulaguntzen oinarri arautzaileak ezartzen dituen eta horretarako deialdia egiten duena.*

COVID-19aren pandemiak sortutako kalte ekonomikoak eta sozialak konpontzen laguntzeko, Europako Batzordeak, Europako Parlamentuak eta Europar Batasuneko agintariek suspertze-plan bat adostu dute, krisitik ateratzeko bidean gidatzeko eta Europa moderno eta jasangarriago baterako oinarriak ezartzeko.

Plan horren esparruan, NextGenerationEU eratu da, aldi baterako suspertze-tresna; bitarteko horrek koronabirusaren pandemiak eragindako kalte ekonomikoak eta sozialak konpontzen lagunduko du, eta COVID-19aren ondorengo Europa ekologikoagoa, digitalagoa, erresilienteagoa eta egungo eta etorkizuneko erronketara hobeto egokitua izatea du xede.

Testuinguru horretan eman da abenduaren 30eko 36/2020 Errege Lege Dekretua, zeinaren bidez presako neurriak onartzen baitira Administrazio Publikoa modernizatzeko eta Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana egikaritzeko. Horren xedea da behar diren xedapen orokorrak ezartzea, Europako funtsen bidez, bereziki Suspertzeko Tresnatik datozen funtsen bidez, finantzatu daitezkeen jardueren programazioa, aurrekontua, kudeaketa eta betearazpena errazteko. Suspertzeko Tresna Europako Kontseiluak onartu zuen 2020ko uztailaren 21ean, hazkunde ekonomiko eta enpleguaren sorrera bultzatzeko, SARS-CoV-2 pandemiak eragindako krisitik suspertu eta kalteak konpontzeko, eta egiturazko eraldatze-prozesua bultzatzeko, inbertsio publikoa eta pribatua bultzatu eta ekoizpen-ehunari lagunduz, trantsizio ekologiko eta digital bikoitza bizkortuz, eta erresilientzia eta ekonomia-, gizarte- eta lurralde-kohesioa indartu eta areagotuko dira, Europako merkatu bakarraren esparruan.

Espainiako suspertze-, eraldatze- eta erresilientzia-planaren esparruan, eta 12. osagaiaren barruan («Espainiako Industria Politika 2030»), «Hondakinen araudia eta ekonomia zirkularreko Espainiako estrategia ezartzen laguntzeko plana» azpiosagaia sartu da; azken hori Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioaren (MITERD) funtsezko plangintza-tresnetako bat da Espainian ekonomia zirkularra hedatzeko.

Bestalde, Euskal Autonomia Erkidegoan Euskadi Next egituratu da, Euskal Autonomia Erkidegoaren suspertze, eraldatze eta erresilientziarako inbertsio-programa. Eusko Jaurlaritzak, hiru foru-aldundiekin eta EAEko hiru hiriburuetako udalekin koordinatuta, Espainiako Gobernuari helarazi dio, aintzat har dezan Espainian Suspertze eta Erresistentzia Mekanismoa (SEM) hornitzen duten funtsen helmugaren esparruan.

Ingurumenaren Konferentzia Sektorialak, 2021eko apirilaren 14ko bileran, autonomia-erkidegoen eta autonomia-estatutua duten hirien arteko aurrekontu-kredituak banatzeko eta lurraldeka banatzeko irizpide objektiboak onartu zituen, honako inbertsio-proiektu hau egiteko: Hondakinen araudia ezartzen laguntzeko Plana, Ekonomia Zirkularren Programa eta Ingurumena Sustatzeko Plana (PIMA Hondakinak).

2022ko ekainaren 20ko Ingurumenaren Konferentzia Sektorialak kreditu berriak banatzeko irizpideak eta horien lurralde-banaketa onesten dituen erabakia hartu zuen.

Gida honen helburua da, ondore praktikoetarako, aurreko guztien alderdi eta gai nagusiak laburtzea.

LEHENA.- XEDEA

(1. artikulua.-Xedea¹)

Diruz lagundu ahal izango dira honako jarduketa-lerro hauek:

- 1. lerroa. Gaikako bilketa berriak abian jartzea, bereziki biohondakinena, eta egungoak hobetzea.
- 2. lerroa. Gaika bildutako biohondakinak tratatzeko instalazio espezifikoak eraikitzea.
- 3. lerroa. Gaika bildutako beste hondakin-fluxu batzuk berrerabiltzeko eta birziklatzeko prestatzeko instalazio berriak eraikitzea.
- 4. lerroa. Bilketa (garbiguneak, kasurako), triajea eta sailkapena (ontziak, papera, eta abar) egiteko instalazioetako inbertsioak, egungo tratamendu mekaniko-biologikoko instalazioak eta berreskuratutako erregai solidoak prestatzeko instalazioak hobetzea.

(4. artikulua.– Dirulaguntzaren xede diren proiektuak¹)

2. artikulua.– Diruz lagundu daitezkeen proiektuak:

- 1. lerroa. Gaikako bilketa berriak abian jartzea, bereziki biohondakinena, eta egungoak hobetzea.
 - 1.1 – Tratamendu biologikoko instalazio espezifikoetara (konposta, digestio anaerobioa edo biak) bideratutako biohondakinaren bilketa berezia ezartzeko, handitzeko edo hobetzeko proiektuak.
 - 1.2 – Biohondakinak jatorrian bereizteko eta birziklatzeko proiektuak, etxean eta komunitatean konpostatzearen bidez.
 - 1.3 – Etxean, merkataritzan eta zerbitzuetan sortutako sukaldeko olio erabilia bereizita biltzea ezartzeko edo bilketa hobetzeko proiektuak, olio balorizatu, eta, bereziki, bioerregaia lortzeko.
 - 1.4. – Hiri-hondakinetakoko ehun-hondakinak bereizita biltzea ezartzeko edo hobetzeko proiektuak, berrerabiltzeko edo birziklatzeko prestatzeko.
- 2. lerroa. Gaika bildutako biohondakinak tratatzeko instalazio espezifikoak eraikitzea.
 - 2.1 – Konpostatze-instalazioak, digestio anaerobioko instalazioak edo bi tratamenduen konbinazio bat eraikitzeko proiektuak, bereizita bildutako biohondakinak tratatzeko.

¹AGINDUA, 2021eko urriaren 13koa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuarena, zeinaren bitartez ezartzen baitira Euskal Autonomia Erkidegoan hondakinaren araudia ezartzeko eta ekonomia zirkularra sustatzeko dirulaguntzen oinarri arautzaileak eta horretarako deialdia egiten baita.

- 2.2 – Dagoeneko badauden tratamendu mekaniko-biologikoko instalazioak egokitzeko proiektuak, berezita bildutako biohondakinak tratatzeko linea independente bat sartzeko.
- 2.3 – Dagoeneko badauden konpostatze eta digestio anaerobioko instalazioak hobetzeko proiektuak, berezita bildutako biohondakinak tratatzeko.
- 3. lerroa. Gaika bildutako beste hondakin-fluxu batzuk berrerabiltzeko eta birziklatzeko prestatzeko instalazio berriak eraikitzea.
 - 3.1 – Bereiz bildutako hondakin-fluxuak berrerabiltzeko prestaketa-instalazioak eraikitzea.
 - 3.2 – Ehun-hondakinak birziklatzeko instalazioak eraikitzea.
 - 3.3 – Plastiko-hondakinak birziklatzeko instalazioak eraikitzea.
- 4. lerroa. Bilketa (garbiguneak, kasurako), triajea eta sailkapena (ontziak, papera, eta abar) egiteko instalazioetako inbertsioak, egungo tratamendu mekaniko-biologikoko instalazioak eta berreskuratutako erregai solidoak prestatzeko instalazioak hobetzea.
 - 4.1.– Bilketa-instalazioak eraikitzeko eta hobetzeko proiektuak (hala nola garbiguneak; ehun-hondakinen eta etxeko hondakin arriskutsuen bilketa barne).
 - 4.2 – Hondakinen (ontziak, papera, eta abar) triajea eta sailkapena egiteko instalazioak eraikitzeko eta hobetzeko proiektuak.
 - 4.3 – Tratamendu mekaniko-biologikoko lehendik dauden instalazioak hobetzeko proiektuak, birziklatu daitezkeen materialak berreskuratzeko efikazia areagotzeko.
 - 4.4.- Berreskuratutako erregai solidoa prestatzeko instalazioak eraiki eta hobetzeko proiektuak (azken lerro hori bakar-bakarrik Ekonomia Zirkularraren Programaren eta Ingurumena Sustatzeko Planaren —PIMA Hondakinak— aurrekontuen kargura finantzatu da).

(18. artikulua – Erakunde onuradunaren betebeharrak²).

Proiektuan edozein arrazoi dela medio aldaketak eginez gero, lehenbailehen jakinaraztea Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzari, aldaketa horien onarpenera eskatzeko. Era berean, dirulaguntza emateko kontuan hartutako edozein gorabehera objektibo zein subjektibo aldatuz gero, erakunde emaileari horren berri eman beharko zaio.

GARRANTZITSUA!

² Euskal Autonomia Erkidegoan hondakinen araudia ezartzeko eta ekonomia zirkularra sustatzeko dirulaguntzen oinarri arautzaileak ezartzen dituen eta horretarako deialdia egiten duen Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren 2021eko urriaren 13ko AGINDUAREN artikulua aldatu egin zen agindu honen 4. artikulua araberako: AGINDUA, 2022ko irailaren 21ekoa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuarena, zeinaren bitartez aldatzen baita 2021eko urriaren 13ko Agindua, Euskal Autonomia Erkidegoan hondakinen araudia ezartzeko eta ekonomia zirkularra sustatzeko dirulaguntzen oinarri arautzaileak ezarri eta horretarako deialdia egiten duena.

Aldaketa guztiak aurretiaz eskatu behar dira, zuzen justifikatu behar dira eta idatziz onartu behar ditu Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren Zuzendaritzak.

BIGARRENA.- EMANDAKO ZENBATEKOA

(6. artikulua.- Aurrekontu-zuzkidura³, 15. artikulua.- Dirulaguntzaren zenbatekoa⁴).

Emandako dirulaguntza, deialdiaren ebazpenean jasota dagoena da.

Dirulaguntzaren erakunde onuradunari banakako jakinarazpena egingo zaio, eman den dirulaguntza diruz lagundu daitezkeen kostuen ehuneko zenbat den jakinarazteko, onartutako inbertsioa kontuan hartuta⁵.

Edonola ere, agindu honetan ezarritako gehieneko zenbatekoak aplikatuko dira: Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren 2021eko urriaren 13ko Agindua, zeinaren bitartez ezartzen baitira

Euskal Autonomia Erkidegoan hondakinen araudia ezartzeko eta ekonomia zirkularra sustatzeko dirulaguntzen oinarri arautzaileak eta horretarako deialdia egiten baita. Agindu hori aldatu zuen Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren 2022ko irailaren 21eko Aginduak.

Inbertsioa egin ondoren diruz lagundu daitezkeen kostuak eskaeran jasotakoak baino txikiagoak baldin badira, dirulaguntzaren behin betiko zenbatekoa murriztu egingo da, goian aipatutako dirulaguntza ehunekoraino.

³ Euskal Autonomia Erkidegoan hondakinen araudia ezartzeko eta ekonomia zirkularra sustatzeko dirulaguntzen oinarri arautzaileak ezartzen dituen eta horretarako deialdia egiten duen Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren 2021eko urriaren 13ko AGINDUAREN artikulua aldatu egin zen agindu honen 1. artikulua araberako: AGINDUA, 2022ko irailaren 21ekoa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuarena, zeinaren bitartez aldatzen baita 2021eko urriaren 13ko Agindua, Euskal Autonomia Erkidegoan hondakinen araudia ezartzeko eta ekonomia zirkularra sustatzeko dirulaguntzen oinarri arautzaileak ezarri eta horretarako deialdia egiten duena.

⁴AGINDUA, 2021eko urriaren 13koa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuarena, zeinaren bitartez ezartzen baitira Euskal Autonomia Erkidegoan hondakinen araudia ezartzeko eta ekonomia zirkularra sustatzeko dirulaguntzen oinarri arautzaileak eta horretarako deialdia egiten baita.

⁵ Ikusi ondorengo apartatua: FINANTZA DAITEZKEEN GASTUAK, EZIN FINANTZA DAITEZKEEN GASTUAK ETA JUSTIFIKAZIO-AGIRIAK.



Inbertsioa egiteko epea **eskaeraren kronograman definitutakoa izango da**. Hala ere, honako epe hauek aplikatuko dira:

(4. artikulua.– Dirulaguntzaren xede diren proiektuak⁶).

1.- Gauzatzeko epea

Dirulaguntzaren xede diren proiektuak 2020ko martxoaren 1etik hasita egon ahal izango dira, eta gauzatzeko epea gehienez ere 2026ko maiatzaren 31n amaituko da.

Edonola ere, proiektua 2023ko ekainaren 30a baino lehen hasita egon beharko da. **Hasierako proiektutzat hartuko da eraikuntza-lanak, instalazioak hobetzeko lanak edo bereizitako bilketak ezartzeko lanak hasi dituen proiektua.**

Onuradunak behar bezala justifikatzen badu, proiektua garatzeko luzapena eman ahal izango da, eskabidean zehaztutako gauzatzeko epearen erdikoa gehienez. Luzapen hori egin ahal izateko, laguntzaren xede den proiektuak 2026ko maiatzaren 31 baino lehen amaituta egon beharko du.

⁶AGINDUA, 2021eko urriaren 13koa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuarena, zeinaren bitartez ezartzen baitira Euskal Autonomia Erkidegoan hondakinen araudia ezartzeko eta ekonomia zirkularra sustatzeko dirulaguntzen oinarri arautzaileak eta horretarako deialdia egiten baita.



(18. artikulua – Erakunde onuradunaren betebeharrak⁷).

Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planean eta bere aplikazio-araudian ezarritako betebehar espezifikoak betetzea, eta bereziki honako hauei lotutakoak:

- DNSH – Do Not Significant Harm Printzipioa (ingurumenari kalte esanguratsurik ez eragiteko printzipioa) erabat betetzen dela bermatzea, honako hauek ezarritakoarekin bat: Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana; Kontseiluaren Betearazpen Erabakia, Espainiako Suspertze eta Erresilientzia Planaren ebaluazioa onartzeari buruzkoa (Council Implementing Decisión – CID); Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021/241 (EB) Erregelamendua, 2021eko otsailaren 12koa, eta irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduaren 5. artikulua (aginduak Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren kudeaketa-sistema eta hura garatzeko araudia eratzen ditu, proiektuen diseinuaren eta betearazpenaren fase guztietan eta jarduera bakoitzerako banaka). Nolanahi ere, entitate onuradunek printzipio hori betetzen dela egiaztatzeke mekanismoak eta ezarpena ziurtatzeko neurri zuzentzaileak aurreikusiko dituzte, eta horren berri emango dute dirulaguntza justifikatzeko memorian.
- Bermatzea ez dagoela interes-gatazkarik, iruzurrik eta ustelkeriarik, eta baldintzarik eta erreparorik gabe onartzea Eusko Jaurlaritzak onartutako Iruzuraren aurkako Neurrien Plana –kontratuaren baldintza espezifikoaren xxx klausulan jasotakoa. Hala, horren xedapenen mende egongo da erabat, eta guztiz beteko ditu autonomia-erkidegoko, Estatuko eta Europako araudiak, bai eta Europar Batasuneko erakundeek beren finantza-interesak babesteari buruz hartzen dituzten erabakiak ere.
- Funtzen jasotzailearen identifikazioari buruzko informazioa formatu elektronikoa ematea, eta formatu horrek datu-base bakarrean bilaketak egitea ahalbidetzea: funtsen jasotzailearen izena, eta, hala badagokio, jaiotza-eguna, laguntzen kontzeptuan edo kontratista eta azpikontratista izaerarekin, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2015/849 EB Zuzentarauaren 3. artikulua 6. puntuan benetako titularra definituta dagoen moduari jarraikiz, eta Ogasun eta Funtzio Publikoko Ministerioak ezarritako moduan, modu horretan betetzeko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 EB Erregelamenduaren 22.2.d) artikulua eskakizuna.
- Europako Batzordeak, Iruzuraren Aurkako Bulegoak (OLAF), Europako Kontuen Auzitegiak eta Europako Fiskaltzak ezarritako kontrolak onartzea. Horretarako, organo horiei dirulaguntzari buruz

⁷ Euskal Autonomia Erkidegoan hondakinen araudia ezartzeko eta ekonomia zirkularra sustatzeko dirulaguntzen oinarri arautzaileak ezartzen dituen eta horretarako deialdia egiten duen Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren 2021eko urriaren 13ko AGINDUAREN artikulua aldatu egin zen agindu honen 4. artikulua arabera: AGINDUA, 2022ko irailaren 21ekoa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuarena, zeinaren bitartez aldatzen baita 2021eko urriaren 13ko Agindua, Euskal Autonomia Erkidegoan hondakinen araudia ezartzeko eta ekonomia zirkularra sustatzeko dirulaguntzen oinarri arautzaileak ezarri eta horretarako deialdia egiten duena.

eskatutako informazio guztirako sarbidea emango zaie, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamenduaren 22.2 e) artikuluan ezarritakoaren arabera.

Helburu horretarako, berariaz baimendu beharko dituzte Batzordea, OLAF, Kontuen Auzitegia, eta, beharrezkoa denean, Europako Fiskaltza, Finantza Erregelamenduaren 129. artikuluko 1. apartatuak aitortzen dizkien eskubideak egikaritu ditzaten.

Eskakizun hori bete beharko dute suspertze- eta erresilientzia-planeko erreformen eta inbertsio-proiektuen aplikazio-neurrietarako ordaindutako funtsen azken jasotzaile guztiek edo neurrien aplikazioan esku hartzen duten gainerako pertsonak edo erakundeak.

- Jasotako funtsen aplikazioaren egiaztagiria zaintzea eta gordetzea bost urtez edo, finantzaketaren zenbatekoa 60.000 eurokoa edo txikiagoa bada, hiru urtez, dokumentu elektronikoak barne, egiaztapen- eta kontrol-jarduketak egiteko aukera emate aldera, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2018ko uztailaren 18ko 2018/1046 (EB, Euratom) Erregelamenduaren 132. artikuluan eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamenduaren 22.2.f) artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik.
- Informatika-sisteman beti egunean izatea irailaren 29ko HFP/1031/2021 Aginduaren arabera dagozkion mugarrak eta helburuak betetzeari buruzko informazioa. Agindu horren bidez ezarri da Estatuko, autonomia-erkidegoetako eta tokiko sektore publikoko entitateek informazioa emateko prozedura eta formatua, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren osagaietako neurrien mugari eta helburuen betetze-mailari eta neurrien aurrekontu- eta kontabilitate-betearazpenari jarraipena egiteko.
- Hala dagokionean, laguntza emateko ebazpenean ezar litezkeen gainerako betebeharrak betetzea.

GARRANTZITSUA!

TOKI-ERAKUNDEA izanez gero:

Erakunde betearazle gisa, honako aginduan ezarritako betebeharrak bete beharko ditu: HFP/1031/2021 Agindua, irailaren 29koa, Estatuko, autonomia-erkidegoetako eta tokiko sektore publikoko entitateek informazioa emateko prozedura eta formatua ezartzen dituen, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren osagaietako neurrien mugarrak eta helburuak betetzen diren kontrolatzeko eta neurrien aurrekontu- eta kontabilitate-betearazpenaren jarraipena egiteko. CoFFEE informatika-sisteman beti egunean izatea irailaren 29ko HFP/1031/2021 Aginduaren arabera dagozkion mugari eta helburuak betetzeari buruzko informazioa.

Toki-erakundea EZ bada:

Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren Zuzendaritzari behar duen jarraipen-informazio guztia ematea, eta, bereziki, SEEPen kudeaketa- eta jarraipen-informazioko sistemari eman beharreko



informazioa ematea, irailaren 29ko HFP/1031/2021 Aginduan xedatutakoaren arabera, eta informazio-sistemaren erabilerari eta funtzionamenduari buruzko eskuliburuan ezarritakoaren arabera (CoFFEE-SEM erabiltzaile-eskuliburua, Europako Funtsen Idazkaritza Nagusiaren web-orrian eskuragarri dagoena⁸).

BOSGARRENA.- PUBLIZITATEA.

(18. artikulua – Erakunde onuradunaren betebeharrak⁹).

- Publizitatea emateko betebeharra –Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 19. artikuluan jasotakoa– betez, erakunde onuradunek laguntzen deialdi honen bitartez lortutako babesaren berri emango dute jendaurrean:
 - Beren webgunean diruz lagundutako proiektua deskribatuz.
 - Gutxienez kartel bat jarriz, agindu honek araututako dirulaguntza lortu izana aipatuko duena. Gainera, proiektuari buruzko informazioa jasoko du. Gutxienez A3 neurrikoa izango da eta jendeak ongi ikusteko moduko tokian egongo da, eraikinean sartzeko atearen edo ateen burutik gertu, edo jarduketa egiten den toki zehatzean. Kartel hori 2 hilabetez egongo da ikusgai gutxienez, dirulaguntza ematea jakinarazten denetik aurrera, eta 2 hilabete gehiagoz proiektuaren amaierako justifikazioa aurkezteko unean.
- NextGenerationEU funtsen babesa aipatzea egiten diren dokumentuetan eta prentsa-komunikazioetan, baita publizitatean ere. Hedapen-kartel eta -material guztietan, eta egiten den publizitate guztietan, eta bereziki diruz laguntzen diren obra, ibilgailu edo ekipamenduetan, funts horiekin lotutako logotipoak jarri beharko dira.
- Zabalkunderako egiten diren kartel, testu eta dokumentu guztiak euskaraz eta gaztelaniaz egingo dira.
- Argitalpenik eginez gero, Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailari bidali beharko zaio euskarri digitalean.
- Egiten diren dokumentu eta ekintzek genero-ikuspegia txertatuko dute, eta hizkuntzaren eta irudiaren erabileran ez da diskriminazio-elementurik egongo.

GARRANTZITSUA!

⁸ <https://www.fondoseuropeos.hacienda.gob.es/sitios/dgpmrr/eu-ES/paginas/coffee.aspx>.

⁹ EAEn hondakinen araudia ezartzeko eta ekonomia zirkularra sustatzeko dirulaguntzen oinarri arautzaileak ezartzen dituen eta horretarako deialdia egiten duen Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren 2021eko urriaren 13ko AGINDUAREN artikulua aldatu egin zen agindu honen 4. artikulua arabera: AGINDUA, 2022ko irailaren 21ekoa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuarena, zeinaren bitartez aldatzen baita 2021eko urriaren 13ko Agindua, EAEn hondakinen araudia ezartzeko eta ekonomia zirkularra sustatzeko dirulaguntzen oinarri arautzaileak ezarri eta horretarako deialdia egiten duena.

Finantzaketaren jatorria aipatu, eta ikusgarritasuna ematen zaiola zaindu behar da. EBren ikurra modu zuzen eta nabarmenean erakutsi beharko da eta finantzaketaren aipamen zuzena egin beharko da hau esanez: «Europar Batasunak finantzatuta–NextGenerationEU», SEEPen logoarekin batera. Horretaz gain, gainbegiratu beharko da adjudikaziodunek finantzaketa honen jatorria aipatuko dutela eta ikusgarri dagoela zainduko dutela, bereziki ekintzak eta beren emaitzak sustatzen dituztenean, eta informazio koherentea, eraginkorra eta hainbat jasotzailerentzat proportzionatuta eman beharko dute, komunikabideak eta publiko orokorra barne hartuta. Halaber, MITERDen eta Eusko Jaurlaritzaren logoak modu zuzen eta nabarmenean erakutsi beharko dira.

Hona hemen Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren onuradunentzako komunikaziorako eskuliburuak:

<https://www.euskadi.eus/erakunde-nortasunaren-eskuliburua/web01-a2ogafon/eu/>

<https://soportesgffee.zendesk.com/hc/es/sections/4517004281617-Documentos-para-la-gestión-de-la-comunicación-del-PRTR>



FINANTZA DAITEZKEEN GASTUAK

(5. artikulua – Diruz lagundu daitezkeen gastuak¹⁰).

Diruz lagundu daitezkeen gastuak izango dira, Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorraren 31. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik, EAEn hondakinen araudia ezartzeko eta ekonomia zirkularra sustatzeko dirulaguntzen oinarri arautzaileak ezartzen dituen eta horretarako deialdia egiten duen Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren 2021eko urriaren 13ko AGINDUAREN 1. eta 4. artikuluetan ezarritako ekintzen betearazpenetik eratorritakoak. Edonola ere, proiektua garatzeko aldiari egindako gastuak bakarrik lagunduko dira diruz.

¹⁰AGINDUA, 2021eko urriaren 13koa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuarena, zeinaren bitartez ezartzen baitira EAEn hondakinen araudia ezartzeko eta ekonomia zirkularra sustatzeko dirulaguntzen oinarri arautzaileak eta horretarako deialdia egiten baita.



(5. artikulua – Diruz lagundu daitezkeen gastuak¹¹).

Gastu hauek ez dira diruz lagunduko:

- Diruz laguntzen diren ekintzen balio erantsiaren gaineko zergari dagozkionak.
- Komunikazio-, partaidetza-, informazio- edo sentsibilizazio-kanpainei buruzkoak, salbu eta EAEn hondakinen araudia ezartzeko eta ekonomia zirkularra sustatzeko dirulaguntzen oinarri arautzaileak ezartzen dituen eta horretarako deialdia egiten duen Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren 2021eko urriaren 13ko AGINDUAREN 4. artikuluan berariaz aipatu diren ekintzetan.
- Lurrak eskuratzeari dagozkionak.
- Udalerriko edo toki-erakundeko edo haiei lotutako enpresetako eta pertsona juridiko publiko eta pribatuetako plantillako langileei dagozkien gastuak, eta diruz lagundu ezin diren gainerako gastuak, dirulaguntzei buruzko araudian ezarritakoari jarraikiz.
- Ez dira diruz lagunduko leasing finantzarioko eragiketak. Renting erako eragiketei dagokienez, proiektua gauzatzeko benetako aldiari dagokion kostua baino ez da diruz laguntzekoa izango, deialdi honetan ezarritakoaren arabera.

¹¹AGINDUA, 2021eko urriaren 13koa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuarena, zeinaren bitartez ezartzen baitira EAEn hondakinen araudia ezartzeko eta ekonomia zirkularra sustatzeko dirulaguntzen oinarri arautzaileak eta horretarako deialdia egiten baita.

NOLA JUSTIFIKATZEN DIRA ORDAINKETAK?

- **Finantza-erakundearen egindako ordainketak:** jatorrizko faktura eta bankuak emandako faktura kobratu dela egiaztatzen duen bankuko transferentziaren ziurtagiria edo kontuaren laburpena aurkeztuko dira.
- **Taloi edo txekeen bidezko ordainketak:** jatorrizko faktura, txekearen kopia eta kontura egindako kargua aurkeztuko dira, eta azken horretan egiaztatuko da hornitzaileak txekea zuzen kobratu duela.

Azken dirulaguntzaren zenbatekoa emandako dirulaguntzaren kopuruarekiko gutxitu ahal izango da hainbat arrazoi direla-eta.

Arrazoi ekonomikoengatik, gastuak sartzean:

- Diruz lagundutako jarduerarekin loturarik ez dutenak (beste proiektu batzuk, epez kanpoko fakturak...).
- Laguntzarik jaso ezin dutenak (fakturaren egunarengatik edo kontzeptuarengatik, isunak, komisioak...).
- Beste laguntza batean finantzatuta daudenak.
- Oker justifikatutakoak.
- Merkataritzako trafiko juridikoan baliozkoak ez diren kontabilitate-agiriak (fakturen datuak).

Arrazoi teknikoak direla-eta:

- Proiektua hautatzearen arrazoi izan zen jardueraren bat ez betetzea.
- Erakunde onuradunak dirulaguntza eraginkor egiteko bete behar dituen baldintzen agirian ezarritako baldintzak ez betetzea; agiri hori deialdiaren ebazpenarekin batera bidaltzen da.
- Proiektuaren jarraipen- eta kontrol-eginkizunak ez ematea.
- Justifikazio-agiriak ez aurkeztea edo epez kanpo edo modu desegokian bidaltzea.
- Jarduketaren bat ez egitea edo baimenik gabe aldatzea.
- Logotiporik ez egotea edo proiektuaren publizitatean lehentasunezkoa ez den lekuan jartzea.

Onuradunak justifikazio ekonomikoan kalkulaturakoa baino gutxiago jasoko badu, horren berri emango zaio.

ZEIN AGIRI AURKEZTU BEHAR DIRA JUSTIFIKATZEKO?

(22. artikulua.- Dirulaguntza justifikatzea¹²).

Pertsona eta erakunde onuradunek 2026ko maiatzaren 31 baino lehen gauzatu beharko dute diruz lagundutako ekintza, eta **2026ko ekainaren 30a baino lehen justifikatu**. Proiektua 2026ko maiatzaren 31 baino lehen amaitzen bada, onuradunak edozein unetan aurkez dezake justifikazio-dokumentazioa; betiere, **2026ko ekainaren 30a baino lehen**.

GARRANTZITSUA!

Proiektuaren azken justifikaziorako agiriak elektronikoki aurkeztuko dira «nire karpeta» atalean, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa).¹³

Aurkeztu beharreko justifikazio-agiriek honako edukiak izan beharko dituzte:

- Justifikazio teknikoa.
- Justifikazio ekonomikoa.
- Proiektuaren hedapenaren inguruan egindako justifikazioa.
- Hautagarritasun-baldintzak egiaztatzearen inguruko justifikazioa.

GARRANTZITSUA!

Laguntzaren xede diren eta gauzatu diren jarduketak egiaztatzeko sistema bat izatearren, eskatzen da agiri guztiak CoFFEEen proiektuaren ardura duen pertsonak izenpetzea, erakunde betearazleen kasuan, edo erakundearen ordezkariak gainerako erakundeen kasuan.

¹²AGINDUA, 2021eko urriaren 13koa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuarena, zeinaren bitartez ezartzen baitira EAEn hondakinen araudia ezartzeko eta ekonomia zirkularra sustatzeko dirulaguntzen oinarri arautzaileak eta horretarako deialdia egiten baita.

¹³ <https://www.euskadi.eus/nirekarpeta>.



JUSTIFIKAZIO TEKNIKOA

(22. artikulua.- Dirulaguntza justifikatzea¹⁴).

Kasu guztietan, egoitza elektronikoan honako agiriak aurkeztu beharko dira:

- Dirulaguntza eskatu den jardun-ildoari dagozkion diruz lagundutako ekintzak gauzatzeari buruzko azalpen-memoria, jarduketaren ezaugarri aipagarrienak eta helburuen betetze-maila adierazita. Proposamenaren aurreikusitako ekintzen gauzatzeko-maila balioetsi ahal izateko adina informazio eman beharko dute, aurreikuspenen eta azkenean egindako jarduketaren irismenaren arteko alderaketa barne. Zehazki, diruz lagundutako ekintzak gauzatu izana deskribatzen duen memoria bi dokumentuk osatuta egongo da:
 - Lehenengoan haren ezaugarri nagusiak eta jarduketaren ingurumen-helburuen betetze-maila azalduko dira. Diruz lagundutako ekintzaren izaeraren arabera, jarduketaren aurretik eta ondoren egindako argazkiak jasoko dira memorian, ahal den guztietan¹⁵.
 - A priori jarritako helburuei dagokienez, ingurumenaren gaineko eraginak eta presioak benetan zenbateraino gutxitu diren zehazten duen beste bat¹⁶.
- Arriskuen analisi bat egin beharko da ingurumenaren sor daitezkeen kalte esanguratsu negatiboekin lotuta (Do Not Significant Harm, DNSH), eta galdetegi hau beteko da: https://www.prtr.miteco.gob.es/content/dam/prtr/es/obligaciones-medioambientales/cuestionariodnshmitecov20_tcm30-529213.pdf. Horretarako, Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioak egindako gidan xedatutakoari jarraituko zaio¹⁷.
- Titulartasun errearen erantzukizunpeko adierazpenaren eredu, 2021eko urriaren 13ko Aginduaren 18. artikuluan jasotako informazio-betebeharrak betetzeko, erakunde pribatuei aplikatzeko¹⁸.
- Proiektuan sortutako materialen kopia, azterketak eta txostenak barne.

¹⁴AGINDUA, 2021eko urriaren 13koa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuarena, zeinaren bitartez ezartzen baitira EAEn hondakinen araudia ezartzeko eta ekonomia zirkularra sustatzeko dirulaguntzen oinarri arautzaileak eta horretarako deialdia egiten baita.

¹⁵Eredu hori V. eranskinean ageri da.

¹⁶Txantiloien eredu hori VI. eranskinean ageri da.

¹⁷ https://www.miteco.gob.es/es/ministerio/recuperacion-transformacion-resiliencia/transicion-verde/guiadnsh_tcm30-528436.pdf.

¹⁸ Erakunde onuradunak bidali beharreko adierazpenak onuradunari NireKarpeta bitartez joan de urtarrilean bidalitako "Emandako dirulaguntza gauzatzeko erakundeak bete behar dituen baldintzak" agiriko I-V eranskinetan jasota daude. Hala ere, NEXT Funtsen agintari kudeatzaileek erakunde kudeatzaileek aurkeztu behar duten galdetegi berri hau eskatu dute, eta laguntza justifikatzeko unean espedientearen sartzeko eskatzen da, beraz. Onuradunak Titulartasun errearen adierazpenaren eredu bete beharko du erakunde onuradunaren informazioarekin. Nolanahi ere, adierazpen guztiak Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoan egongo dira eskuragarri: esteka honetan: https://www.euskadi.eus/ayuda_subvencion/2021/subvenciones-para-el-apoyo-a-la-implementacion-de-la-normativa-de-residuos-y-el-fomento-de-la-economia-circular-en-euskadi/web01-tramite/es/

- Georreferentziatutako informazioari dagokionez, kartografia shape formatuan eta ETRS89 proiektzioan aurkeztu behar dute. Kartografia-informazioko metadatuaren fitxa bat bete beharko da kartografiako geruza bakoitzeko¹⁹.

¹⁹ https://www.euskadi.eus/contenidos7informacion7instrucciones_documentacion/es_def/adjuntos/formulario-metadatos-es-g.pdf.



JUSTIFIKAZIO EKONOMIKOA

(22. artikulua.- Dirulaguntza justifikatzea²⁰).

Kasu guztietan, egoitza elektronikoan honako agiriak aurkeztu beharko dira:

- Diruz lagundutako gastua benetan egin dela egiaztatzen duten fakturak edo ordainagiriak. Ordainagirietan fakturatutako zenbatekoak zehaztuta agertuko dira, eta kontzeptuak banakatuta eta unitateko prezioekin. Hala, aurkeztutako dokumentazio teknikoa alderatu ahal izango da.
- Aurkeztutako fakturen zerrenda laburtua²¹.
- Diru-sarreraren eta gastuen zerrenda. Gastu-zerrendan, fakturatutako kontzeptuak nahikoa zehaztu beharko dira, diruz lagundutako gastuei dagozkien zenbatekoak eta besteak bereizi ahal izateko.²²
- Helburu berberarekin jaso ahal izan diren bestelako dirulaguntzen emakidaren eta zenbatekoaren zinpeko adierazpena. Xede bererako beste dirulaguntzaren bat jaso den edo ez adierazten duen idazki bat, jasotako zenbatekoa eta laguntza horiek BEZa duen edo ez adierazita²³.

GARRANTZITSUA!

Egiaztatutako gastuak emandako dirulaguntzaren zenbatekoa baino gutxiagokoak badira, ordainduko den laguntza modu proportzionalan gutxituko da.

EAEn hondakinen araudia ezartzeko eta ekonomia zirkularra sustatzeko dirulaguntzen oinarri arautzaileak ezartzen dituen eta horretarako deialdia egiten duen Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren 2021eko urriaren 13ko AGINDUAN araututako dirulaguntzak ezingo dira bestelako laguntzekin edo Batasunaren ekarpenekin metatu, baldin eta metatze horrekin laguntzaren zenbatekoak Europar Batasuneko araudiaren gehienekoa gainditzen badu. Beste entitate batzuek xede bererako laguntzak emanez gero, laguntza onuragarrienaren gehieneko muga aplikatuko da.

²⁰AGINDUA, 2021eko urriaren 13koa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuarena, zeinaren bitartez ezartzen baitira EAEn hondakinen araudia ezartzeko eta ekonomia zirkularra sustatzeko dirulaguntzen oinarri arautzaileak eta horretarako deialdia egiten baita.

²¹ Fakturen zerrenda «Lotutako fakturen» atalean dago, V. eranskin gisa atxiki den azken justifikaziorako memoria teknikoaren eremuan.

²² Txantiloien eredu hori I. eranskinean ageri da.

²³ Txantiloien eredu hori II. eranskinean ageri da.

PROIEKTUAREN HEDAPENAREN JUSTIFIKAZIOA

(22. artikulua.- Dirulaguntza justifikatzea²⁴).

Aplikatzekoa denean (deialdiaren ebazpenarekin batera bidaltzen den eta erakundeak dirulaguntza eraginkor egiteko bete behar dituen baldintzen agiriaren arabera), egoitza elektronikoan honako agiri hauek aurkeztuko dira:

- Diruz lagundutako ekimenaren berri emateko egindako komunikazio- eta publizitate-ekintzei buruzko memoria deskribatzailea.
- Proiektuan sortutako materialen kopia, zabalkunde eta komunikaziorako materialak eta abar barne.

BOSGARRENA.- PUBLIZITATEA apartatuan adierazi den bezala, laguntzaren jatorriaren babesletza zuzena izan beharko da.

²⁴AGINDUA, 2021eko urriaren 13koa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuarena, zeinaren bitartez ezartzen baitira EAEn hondakinen araudia ezartzeko eta ekonomia zirkularra sustatzeko dirulaguntzen oinarri arautzaileak eta horretarako deialdia egiten baita.



Zerga-betebeharrak (foru-ogasuna) eta Gizarte Segurantzakoak betetzearen ziurtagiriei dagokienez, organo kudeatzaileak ofizioz egiaztatuko du onuradunek egunean dituztela zerga-betebeharrak eta gizarte-segurantzako kuoten ordainketak.

(22. artikulua.- Dirulaguntza justifikatzea²⁵).

- Kudeatzaile onuradunak edo, hala badagokio, toki-erakundearen Idazkaritzak egindako ziurtagiria, dirulaguntzaren xedea bete dela eta bestelako dirulaguntzarik lortu duten edo ez adierazten duena. Bestelako dirulaguntzarik lortu badute, ziurtagirian laguntza eman duen organoa, emandako dirulaguntzaren gehieneko ehunekoa eta jasotako dirulaguntzaren zenbatekoa adierazi beharko dituzte.
- Jarduketan betearazpenaren azpikontratazioa, osoa edo partziala, egiten bada, erakunde publiko onuradunek (erakunde betearazleek eta erakunde instrumentalek)²⁶ azpikontratisten dokumentazio berbera aurkeztu beharko dute, honako hauei buruzkoa²⁷:
 - Konpromiso-aitorpena, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planeko jarduketak gauzatzeari dagokionez.
 - Interes Gatazkarik Ezaren Aitorpena (IGEA)
 - Eusko Jaurlaritzaren iruzurraren aurkako plana eta erakunde-adierazpena baldintzarik eta erreparorik gabe onartzeari buruzko adierazpena.
 - Datuen tratamendu eta lagapenerako adierazpena, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planeko (SEEP) jarduketak betetzeari dagokionez
 - Berariazko baimena Europako Batzordeari, Iruzuraren Aurkako Europako Bulegoari, Europako Kontuen Auzitegiari eta Europako fiskaltzari, finantza-erregelamenduaren 129.1 artikulua aitortzen dituen eskubideak egikaritzeko.
 - Titulartasun erreala erantzukizunpeko adierazpenaren eredia.
 - Finantzaketa bikoitzik ez duela ziurtatzen duen erantzukizunpeko adierazpenaren eredia.
 - Zerga Administrazioako Estatu Agentziaren Enpresaburu, profesional eta atxikitzaileen erroldan edo errolda baliokidean inskribatuta dagoela egiaztatzen duen agiria.

²⁵AGINDUA, 2021eko urriaren 13koa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuarena, zeinaren bitartez ezartzen baitira EAEn hondakinen araudia ezartzeko eta ekonomia zirkularra sustatzeko dirulaguntzen oinarri arautzaileak eta horretarako deialdia egiten baita.

²⁶ Erakunde pribatu onuradunek ez dituzte bildu beharko egiten dituzten azpikontratazioei dagozkien erantzukizunpeko adierazpenak.

²⁷ Azpikontratazioaren kasuan jasotzen diren adierazpenak onuradunari NireKarpeta bitartez joan den urtarrilean bidalitako "emandako dirulaguntza gauzatzeko erakundeak bete behar dituen baldintzak" agiriko I-V eranskinei dagozkie. Titulartasun erreala, finantzaketa bikoitzik ezari eta enpresaburu erroldari buruzko ereduak, bestalde, aurrekoekin batera, Gida honen VI. Eranskinean daude jasota.